

1. DEBAKO XXIX. ZIKLOTURISTA MARTXA guztiei dago irekia.
2. Kuota 20 euroakoa izango da Internet-en bidez eginez. Federatu gabeak eta triatletak aseguruarentzat 12 € gehiago (32, 00 €) ordainduko dute. Antolakuntzak ez du dirurik itzuliko frogara etortzen ez direnei.
3. Parte-hartzaile guztiak Ertzaintza eta antolatzailearen aginduak jarraitu eta Trafikoko Arauak betetzera behartuta daude.
4. Antolatzaileak eskubidea izango du frogatik kanporatzeko araudi hau betetzen ez duena, baita ere, antolatzailearen esanak betetzen ez dituen parte-hartzailea.
5. Antolatzaileak laguntza mekanikoa ziurtatuko du ibilbidean. Matxura konponketaren eskulana dohainik izango da baina ordezko piezak ordaindu egin beharko ditu txirrindulariak. Bidean konpondu daitezkeen matxurak bakarrik edukiko dira kontutan zulatuak izan ezik.
6. Izenematea gehienez 400 partaiderekin itxiko da. Nun?: KIROLPROBAK .COM web orrian apirilak 22 arte (16: 00), eta CICLOS TURBINAn apirilak 22 arte, 12ak arte.
7. Helmugako kontrola 14:30etan itxiko da. Martxa bukaerako kotxea egongo da.
8. Antolatzailea ez da arduratuko txirrindulariak eduki dezakeen istripuaz, eragile nahiz biktima moduan. Antolakuntza ez da horrelakoek ekar ditzaketen gastu edo zorren erantzule egingo.
9. Martxa hau ez da norgehiagoka bat. Froga honetan parte hartzeak arautegi honen ezagutza eta onarpena dakar.
10. Antolatzaileak martxa honetako edozein atal aldatzeko eskubidea gordetzen du horretarako motiborik badagoela ikusten badu.
11. Antolatzaileak izenemate eskubidea gordetzen du.
12. Irteera goizeko 8:30etan izango da.
13. Behin izen-ematea eginda, martxaren barruan egoteko, beti aurkitu behar da martxa irekitzen duen autoaren eta 14.30 inguru helmugara iritsiko den auto erratzaren artean. Honengatik hasierako eta itxierako ordutegiak errespetatzea funtsezkoa da.

Hornidura Loiolan egongo da.